

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure jatetxea jendeak ezagutzeko internet bidez publizitatea egingo dugu, sare sozial garrantzitsuetan iragarkiak ipintzen eta gure kontuetan partekatzen, horrela jende gaztea jatetxea ezagutuko du. Fisikoki ere egingo dugu publizitatea, kartelak jarriko ditugu Artearen errepide nagusian, ia jende guztia sartzen baita bertatik. Autobus geltokietan ere jarriko ditugu, denboraldi txarra egiten duenean jende askok garraio publikoa hartzea erabakitzen baitu. Irratian iragarki bat egitea iruditu zaigu ideia ona, gure bezero gehienek kotxean garraiatzen dutelako, gehienak helduak dira eta.

Gure banaketa bidea jatetxean bertan izango da, hau da, jendea etorriko da gure lokal fisikora saltzen ari garena erosteko. Banakuntza eskusiboa izango da, beraz, gure jatetxea bakarra izango da, ez dugu frankizia bat egiteko asmorik. Negozioa ondo funtzionatzen badu beste jatetxe bat Madrilen irekitzea pentsatu dugu. Badakigu jende asko es dakiela non dagoen Artea horregatik mapa bat ipiniko gure kartel publizitatatzen.

Gure jatetxea desberdina da gainerako jatetxeekiko, ematen dugun eksklusibotasuna ez baitauka beste ezein jatetxek. Beste alde batetik, gure hormak bigunak direla esan nahi dugu, zero grabitatea aplikatzerakoan minik har ez dezazun eta seguruago egon zaitezten. Jatetxe osoaren dekoratua espazioan egongo bazina bezala simulatu nahi izan dugu, sabaian izarrak jarri... Eta horri esker, hurrek hobeto pasa dezakete, eta gurasoek, ordu batzuetarako bada ere, haur bat bezala goza dezakete, aldi berean otordu gozo bat jaten dutela.



